



# PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA FABRIKAZIO MEKANIKOAN

GOI-MAILA



“ Ziklo honetan gure inguruko metalurgia-enpresetako arduradun edo erdi-mailako arduradunak izango diren profesionalak formatzen dira. Ikasle horiek kalitate-sistemak ezartzen eta produkzioa antolatzen, egiaztatzen eta hobetzen ikasiko dute.

**Iraupena:** 2.000 ordu  
**Hizkuntza:** D, B eta A ereduak  
Eredu eleanitza (ingelese)

## GAITASUN OROKORRA

Ekipo-ondasunen mekanizazio bidezko fabrikazioa eta muntaia planifikatu, programatu eta kontrolatzea, fabrikatu beharreko produktuen prozesuari buruzko dokumentaziotik eta zehaztapenetatik abiatuta, eta kudeaketaren eta produktuaren kalitatea ziurtatuta; eta laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumenbabeserako sistemak gainbegiratzea.

## PRESTAKUNTZA PLANA

### 1. MAILA

- Interpretazio grafikoa
- Mekanizazio, konformazio- eta muntaia-prozesuen definizioa
- Fabrikazio-prozesuen gauzatzea
- Kalitatearen kudeaketa, laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen-babesa
- Produktuen egiaztapena
- Laneko prestakuntza eta orientabidea

### 2. MAILA

- Zenbakizko kontrol bidezko mekanizazioa
- Ordenagailuz lagundutako fabrikazioa (CAM)
- Produkzioaren programazioa
- Produktu mekanikoak fabrikatzeko proiektua
- FM sistema automatikoen programazioa
- Enpresa eta ekimen sortzailea
- Ingeles teknikoa
- Lantokiko prestakuntza

## IRTEERA PROFESIONALAK

Profesional honek metalak transformatzeko industrietan egiten du lan. Industria horiek makineria eta ekipo mekanikoak, material eta ekipo elektriko, elektroniko eta optikoak, eta industria-sektoreari dagokion garraio-materiala eraikitze azpisektoreen barruan daude.

### LANPOSTUAK

- Metalen prozesurako instalazioen eta metalak lantzen dituzten langileen arduraduna edo talde-burua
- CNC programatzailea
- Sistema automatizatuen programatzailea FMan
- Produkzioaren programatzailea
- Mekanizatuko prozesuetan teknikaria

